# Udal Plangintzako Aholku Batzordearen Erregelamendua

# Reglamento del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal

## Arrazoien Azalpena

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 20. artikuluan xedatutakoaren indarrez, eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean xedatutakoaren arabera, eratu da Udal Plangintzako Aholku Batzordea Zarauzko Udalean, herritarrek udal-plangintzaren arloan parte hartzeko kontsulta-organo gisa. Izan ere, iraunkortasunaren aldeko Europako Hirien Karta (Aalborg-eko Karta) onartu zuen Udalbazak 2002. urtean eta konpromiso horri jarraituz eratu da batzorde hori.

Hirigintzaren arloan, eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 109. artikuluak ezartzen duenaren arabera, hiri-plangintza behin betiko onartzeko eskumena duten udalerri guztiek nahitaez eratu behar dute Udal Plangintzako Aholku Batzorde bat, herritarrek parte hartu ahal izateko mekanismoak sustatzearren. Hirigintza-planen dokumentazioari erantsiko zaizkion programak formulatuta, esate baterako, gauzatu ahal izango da herritarren parte-hartze hori. Batzorde horrek lehenago aditzera emandako helburuak ez ezik, toki-entitatearen hirigintza-antolamendurako tresna nagusiak –eta batez ere Plan Orokorraren inguruko zehaztapenak– formulatzen eta onartzen laguntzea du helburu. Azkenik, Lege horren 110. artikuluak adierazten duenez, onartu beharreko Batzorde horren Erregelamenduan finkatu behar dira Batzordearen eraketa eta haren oinarrizko ezaugarriak.

Hori dela eta, Erregelamendu horrek udalerriko Udal Plangintzako Aholku Batzordearen eraketa eta funtzionamendua arautzea du helburu, betiere gizarteak hiri-plangintza estrategikoan eta udalerrian garapen iraunkorra bideratzeko eta sustatzeko ahaleginean parte hartu ahal izateko aukera emango duen aholku-organo kontsultibo gisa. Erregelamendu horren bidez, Udal Plangintzako Aholku Batzordearen oinarrizko egitura, funtzioak eta araubide juridikoa, besteak beste, finkatzen dira, betiere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 22. artikuluan aurreikusten den taldeko organo den aldetik.

Guzti horren ondorioz, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 110.

## Exposicion de Motivos

Al amparo de lo dispuesto en el artículo 20 de la Ley 7/85, de 2 de abril, reguladora de Bases del Régimen Local, así como a lo dispuesto en la Ley 2/2006 de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo y según el compromiso adquirido por la Corporación municipal en el año 2002 aprobando la Carta de las Ciudades Europeas hacia la sostenibilidad (Carta de Aalborg) se constituye en el Ayuntamiento de Andoain el Consejo Asesor de Planeamiento Municipal, como órgano de participación ciudadana de naturaleza consultiva en materia de planeamiento municipal.

En materia urbanística, la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, en el marco del impulso para favorecer los mecanismos de participación ciudadana, por ejemplo mediante la correspondiente formulación de Programas anexos a la documentación de los planes, establece además en su artículo 109 la obligatoriedad de todos los municipios con competencias para la aprobación definitiva del planeamiento urbanístico de constitución de un Consejo Asesor de Planeamiento Municipal. Este Consejo, además de perseguir dar respuesta a los objetivos antes enunciados, tiene por objeto coadyuvar a la entidad local en la formulación y aprobación de sus principales instrumentos de ordenación urbanística y, más específicamente, en relación con las determinaciones del Plan General. Finalmente, el artículo 110 de la citada Ley remite la constitución y definición de las características básicas del citado Consejo a la aprobación de un Reglamento.

Con este objetivo, el presente Reglamento propone regular la creación y funcionamiento del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal como un órgano consultivo y colegiado que permita articular la participación social en la planificación urbanística estratégica y en la articulación e impulso del desarrollo sostenible en el municipio. A través de este reglamento se determinan también aspectos tales como la estructura básica, funciones y régimen jurídico del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal, atendiendo a su naturaleza de órgano colegiado de los previstos en el artículo 22 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Publicas y Procedimiento Administrativo Común.

En consecuencia, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 110 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo

artikuluan xedatutakoari jarraituz, egin da honako erregelamendua.

*I Kapitulua*
*Udal Plangintzako Aholku Batzordearen Izaera eta Funtzioak*

*1. Artikulua. Udal Plangintzako Aholku Batzordearen sorrera.*

1. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 110. artikuluan aurreikusitakoaren indarrez, eratu da Andoaingo Udal Plangintzako Aholku Batzordea.
2. Aholku Batzorde hori hirigintza arloko informazio, eztabaida eta adostasunerako espazio iraunkor gisa eratu da, eta espazio horretan Udala, gizarte-eragileak, eragile ekonomikoak, ingurumen-eragileak eta, oro har, herritarrak bilduko dira.
3. Udal Plangintzako Aholku Batzordea Andoaingo Udalaren parte-hartzeko tokiko organo osagarri bat da, elkarteek eta herritarren kolektiboek udalerriko gobernu-organoen erabakietan lagundu ahal izatea helburu duena.

2. *artikulua. Atxikitzea.*

Udal Plangintzako Aholku Batzordea hirigintza arloko udal-organo eskudunari atxikitzen zaio.

*3. artikulua. Izaera juridikoa.*

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean arautzen diren taldeko organoetako bat da Udal Plangintzako Aholku Batzordea.

*4. artikulua. Funtzioak eta xedeak.*

1. Udal Plangintzako Aholku Batzordearen helburua izango da udalerriko hirigintza-antolamenduko edozein zehaztapenen inguruko kontsultak, txostenak eta proposamenak egitea, ofizioz zein interesdunak eskatuta.
2. Zehazki, honako funtzioak garatzea dagokio Udal Plangintzako Aholku Batzordeari:

   a). Hirigintza arloko udal-informazioa jasotzea eta informazio hori eraginpean egon

y Urbanismo del País Vasco se dicta el presente reglamento.

*Capitulo I*
*Naturaleza y Funciones del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal*

*Artículo 1. Creación del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal.*

1. De conformidad con lo previsto en el artículo 110 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de suelo y urbanismo del País Vasco, se crea el Consejo Asesor de Planeamiento Municipal de Andoain.
2. El Consejo Asesor se constituye como espacio permanente de información, debate, consenso del Ayuntamiento, de los agentes sociales, económicos, ambientales y de los/as ciudadanos/as, en general, en relación con la materia urbanística.
3. El Consejo Asesor de Planeamiento Municipal es un órgano local complementario de participación del Ayuntamiento de Andoain con la finalidad de que asociaciones y colectivos de ciudadanos/as puedan cooperar en las decisiones de los órganos de gobierno del municipio.

*Artículo 2. Adscripción.*

El Consejo Asesor de planeamiento municipal se adscribe al área municipal competente en materia de Urbanismo.

*Artículo 3. Naturaleza jurídica.*

El Consejo Asesor de planeamiento municipal se configura como órgano colegiado de los regulados en la Ley 30/1992 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común.

*Artículo 4. Funciones y fines.*

1. El Consejo Asesor de Planeamiento Municipal tendrá como objeto la consulta, el informe y la propuesta en relación con cualquiera de las determinaciones de ordenación urbanística sometidas a consideración por parte del Ayuntamiento formuladas bien de oficio bien a instancia de parte.
2. En particular, corresponderá al Consejo Asesor de Planeamiento Municipal el desarrollo de las siguientes funciones:

   a). Recepción de información municipal en materia de urbanismo y comunicación y

daitezkeen herritarren entitateei jakinaraztea eta helaraztea.

b). Udalak aintzat har ditzan proposatu diren hirigintza-antolamenduko zehaztape-netarako ekimenak, iradokizunak, proposamenak eta aukerak aztertzea, bidezko txostenen bitartez.

c). Herritarren parte-hartzea sustatzea, hirigintza-gaiei buruzko herri-kontsultak proposatzea, eta hiri-plangintzako dokumentuei erantsitako herritarren partaidetza-programaren aurreikuspenak modurik egokienean betetzen laguntzea.

d). Herritarren parte-hartzeari eta hiri-iraunkortasunari buruzko azterlanak egiteko eta proposamenak eta txostenak egiteko laguntza eta aholkuak ematea Udalari.

e). Proposatutako hirigintza-antolamenduko zehaztapenetan elkarteek eta entitateek lagundu eta esku hartu dezaten sustatzea.

3. Udal Plangintzako Aholku Batzordearen erabakiak eta proposamenak udalaren gobernu-organoetarako gomendiotzat hartuko dira; alabaina, organo horiek erantzun arrazoitua eman beharko diete baztertzen edo aldatzen diren gomendio guztiei.

*5. artikulua. Aholku Batzordearen edukiak. Txostenak egitea.*

1. Udal Plangintzako Aholku Batzordeak Udalak lantzen edo ezartzen dituen hirigintza arloko plangintza eta jarduneko tresna, azterlan, programa, arteztarau eta jardun-ildo guztien berri izango du, eta, kasu orotan, plan orokorraren idazketa teknikoa hasi ondoren, txostenak egingo ditu. Batzordeak hiri-antolaketarako beste edozein planen edo tresnen inguruko txostenak bildu, ezagutu edo igorri ahal izango ditu. Horrez gain, egiturazko antolamenduan eragina duten plangintza-tresnak lehen aldiz formulatzeko, tresna horiek guztiz edo zati batean berraztertzeko, edo tresna horietan aldaketa zehatzak egiteko espedienteetan txostenak egingo ditu –kasu guztietan eta nahitaez–.

2. Plan Orokorraren, Sektorizazio Planaren edo Bateratze Planaren egiturazko antolamendua

difusión de la misma a las entidades ciudadanas que pudieran resultar implicadas.

b). Estudio de aquellas iniciativas, sugeren-cias, propuestas y alternativas relativas a las determinaciones de ordenación urbanís-tica propuestas para su consideración al Ayuntamiento, mediante la emisión de los correspondientes informes.

c). Promover la participación ciudadana, proponer consultas populares sobre asuntos de índole urbanística y coadyuvar al mejor cumplimiento de las previsiones del Programa de Participación Ciudadana anexo a los documentos de planeamiento urbanístico.

d). Colaboración y asesoría al Ayuntamiento en la realización de estudios y emisión de informes y propuestas sobre la participación ciudadana y la sostenibilidad urbana.

e). Promoción e impulso de la colaboración y el compromiso de las diversas asociaciones y entidades en las determinaciones de ordenación urbanística propuestas.

3. Las decisiones y propuestas del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal tendrán la consideración de recomendaciones para los órganos de gobierno municipal, pero estos tendrán que dar una respuesta fundamentada a todas las recomendaciones que sean desechadas o modificadas.

*Artículo 5.Contenidos del Consejo Asesor. Emisión de informes.*

1. El Consejo Asesor de Planeamiento Municipal conocerá de cuantos estudios, programas, directrices y líneas de actuación elabore o establezca el Ayuntamiento para la formulación del planeamiento general del municipio para coadyuvar a su elaboración, e informará, en todo caso, una vez iniciada la redacción técnica del plan general. El Consejo podrá recabar, conocer y emitir informe de cualquier otro plan o instrumento de ordenación urbanística. Informará, en todo caso y con carácter preceptivo, en los expedientes de primera formulación, revisión total o parcial o modificación puntual de instrumentos de planeamiento que afecten a la ordenación estructural.

2. En los expedientes referentes a la primera formulación o a la revisión total o parcial de la

lehen aldiz formulatzeko edo guztiz edo zati batean berraztertzeko espedienteetan, nahitaezkoa izango da aurrerapen-dokumentuaren edukiari buruzko txostena egitea, baita (proposatutako edo Udalak jada onartutako) plangintza horien hasierako eta behin-behineko onespeneko dokumentuei buruzko txostena egitea ere.

3. Plan Orokorraren, Sektorizazio Planaren edo Bateratze Planaren egiturazko antolamendua zati batean aldatzeko espedienteetan, bestalde, nahitaezkoa izango da (proposatutako edo onartutako) hasierako onespeneko dokumentuaren edukiari buruzko txostena egitea. Aurrerapen-dokumentua baldin badago, plangintza horien hasierako onespenerako dokumentuari buruzko txostena ordezkatu ahal izango du aurrerapen-dokumentu horren edukiari buruzko txostenak.
4. Udal Plangintzako Aholku Batzordeak esku hartzea nahitaezkoa den espedienteetan, Batzorde horrek hilabeteko epea izango du txostena egiteko, betiere artikulu honen aurreko zenbakietan adierazitako izapide-dokumentua aztertzen duen Batzordearen bilkura egiten den egunetik zenbatzen hasita.
5. Era berean, Aholku Batzordeak beste hirigintza-antolamenduko plan batzuen edo beste hirigintza-tresna batzuen espediente guztiak jasotzeko eta aztertzeko aukera izango du, baldin eta gutxienez ere zinegotzi ez diren hiru batzordekidek hala eskatzen badute. Kasu horretan, txostena egiteko epea bat etorriko da hasierako onespenaren ondoren espediente horrek jendaurrean egon beharko duen epearekin.
6. Udalak Aholku Batzordeak planteatutakoez bestelako irtenbideak hautatu baditu, behar bezala justifikatu beharko du hori hirigintza-espedientea behin betiko onartzeko egintzan.
7. Edonola ere, txosten hori ezarritako epeetan egiten ez bada, espedientea onartzeko ardura duten udal-organoek espedientea bideratzen jarraitu ahal izango dute, eta behin betiko onespenaren egintzan ez da zertan aintzat hartu epez kanpo aurkeztutako txostenen edukia.
8. Artikulu honen 1. atalean aipatzen den edozein espedientearen hasiera administrazioaren kabuz jakinaraziko die Udalak zinegotziak ez diren Aholku Batzordeko batzordekideei

ordenación estructural del Plan General, Plan de Sectorización o Plan de Compatibilización será preceptiva la emisión de informe respecto al contenido del documento de Avance y respecto a los documentos de aprobación inicial y provisional (propuestos o ya aprobados por el ayuntamiento) de los citados planeamientos.

3. En los expedientes referentes a la modificación puntual de la ordenación estructural del Plan General, Plan de Sectorización o Plan de Compatibilización será preceptiva la emisión de informe respecto al contenido del documento para la aprobación inicial (propuesto o aprobado). En el caso de existir documento de Avance, el informe sobre el contenido del mismo podrá sustituir el informe sobre el documento para la aprobación inicial de los citados planeamientos.
4. El Consejo Asesor de Planeamiento Municipal, en los expedientes en que su intervención sea preceptiva, deberá emitir su informe en el plazo máximo de un mes a partir de la celebración de la sesión del Consejo en el que se trate el documento de trámite a que se refieren los números anteriores del presente artículo.
5. Asimismo, el Consejo Asesor cuando así lo soliciten al menos tres de sus vocales no concejales/as, podrá recabar con carácter general el conocimiento de todos los expedientes referidos a otros planes de ordenación urbanística o a otros instrumentos urbanísticos. En este supuesto, el plazo para la emisión de informe coincidirá con el plazo de información pública del citado expediente, tras su aprobación inicial.
6. En el acto de aprobación definitiva del expediente urbanístico deberá justificarse por el Ayuntamiento la adopción de soluciones diferentes respecto a las planteadas por el Consejo Asesor.
7. Todo caso, la no emisión del citado informe en los plazos máximos establecidos habilitará a los órganos municipales responsables de su aprobación a proseguir con la tramitación del expediente pudiendo no ser tenido en cuenta en el acto de aprobación definitiva el contenido de los informes que se hubieran emitido extemporáneamente.
8. El Ayuntamiento informará de oficio a los/as miembros no concejales/as del Consejo Asesor del inicio de cualquier expediente de los relacionados en el apartado 1 del presente artículo.

*II. Kapitulua*

*Udal Plangintzako Aholku Batzordearen Osaera*

*6. artikulua. Osaera.*

Kide hauek osatuko dute Udal Plangintzako Aholku Batzordea:

1. Lehendakaria: Alkatea izango da Aholku Batzordeko lehendakaria; dena den, udalbatzako edozein zinegotziren esku utz dezake lehendakaritzaren jarduna.
2. Lehendakariordea: Hirigintza arloan eskumena duen udal saileko zinegotzi titularra izango da eta kargu hau Alkateak beteko balu, lehen-dakariordea Garapen Iraunkorrerako Zinegotzi Ahaldunak beteko du. Lehendakariak bezala-xe, udalbatzako edozein zinegotziren esku utz dezake lehendakariordetzaren jarduna. Lehendakari kargua hutsik badago, edo lehendakaria bertaratzen ez bada edo gaixorik badago, lehendakariordeak ordezkatuko du lehendakaria, baldin eta lehendakariak beste inoren esku utzi ez badu.
3. Batzordekideak:
   a). Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landagunerako Batzorde Irizpenemailea osatzen duten zinegotziek, bertan udalean ordezkapena daukaten talde guztietako ordezkariak egongo direlarik.
   b). Legez eratuta dauden eta Agenda 21eko Foroan parte hartzen duten herriko elkarteetako bi ordezkari.
   c). Andoaingo hezkuntza-komunitateko eta Eskolako Agenda 21eko ordezkari bat.
   d). Ingurumena defendatzea eta babestea helburu duen eta Andoainen kokatuta dagoen erakunde baten ordezkaria.
4. Idazkaria: Udaleko Administrazio Orokorreko Teknikaria (AOT), hirigintza gaietan eskuduna den lansailari atxikitakoa, edo hori ordezkatuko duen udal funtzionaria. Idazkariari dagokio, lehendakariaren zuzendaritzapean, Aholkularitza Batzordeari aholkua eta laguntza ematea. Idazkaria Batzordearen organoen bilkuretan egongo da, hizpidez bai baina botorik gabe.

*7. artikulua. Batzordekideen ordezkaritza.*

1. Ordezkatzen dituzten entitateek hautatuko dituzte batzordekideak. Postu bakoitzeko titularra

*Capitulo II*

*Composicion del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal*

*Artículo 6. Composición.*

El Consejo Asesor de Planeamiento Municipal estará compuesto por los siguientes miembros:

1. Presidente/a: El/La Alcalde/sa será el/la presidente/a del Consejo Asesor; sin embargo podrá delegar la presidencia efectiva en cualquier concejal/a de la Corporación.
2. Vicepresidente/a: Lo será el/la concejal/a titular del área municipal competente en materia de Urbanismo y en el caso de que este cargo sea desempeñado por el/la Alcalde/sa, el/la Concejal/a Delegado/a de desarrollo sostenible. Al igual que el/la presidente/a podrá delegar su cargo en cualquier concejal/a de la corporación. Fuera del supuesto de delegación, el/la vicepresidente/a sustituirá al/a la presidente/a en caso de vacante, ausencia o enfermedad.
3. Vocales:
   a). Los/as miembros que componen la Comisión Informativa de Urbanismo, Obras, Medio Ambiente y Zona Rural del Ayuntamiento, en el que tendrán representación todos los grupos políticos del Consistorio.
   b). Dos representantes de las asociaciones locales legalmente constituidas, que participen en el Foro Agenda 21.
   c). Un representante de la comunidad educativa de Andoain y Agenda 21 Escolar.
   d). Un representante de una entidad ubicada en Andoain dedicada a la protección y defensa medioambiental.
4. Secretario/a: Técnico/a de Administración General (TAG) municipal, adscrito al Departamento competente en materia de urbanismo o funcionario/a municipal que le sustituya. Al Secretario/a le corresponderá, bajo la dirección del Presidente, la asistencia y asesoramiento al Consejo Asesor. El/La Secretario/a acudirá a las sesiones de los órganos del Consejo con voz pero sin voto.

*Artículo 7. Representación de los/as Vocales.*

1. Los/as vocales serán designados/as por las entidades que representan. Se designará por

eta bi ordezko hautatuko dira.

2. Eskolako Agenda 21 entitatearen kasuan izan ezik, Aholku Batzorderako ordezkariak hautatu ahal izateko, dagokien Elkarteen Erregistro Orokorrean egon beharko dute inskribatuta elkarteek. Horrez gain, auzo-elkarteek, saltzaile-elkarteek eta kultura, kirol eta gizarte arloko elkarteek Andoainen izan beharko dute egoitza, eta Andoainen izan beharko dute berariazko jardun-esparrua.
3. Lehendakariak, lehendakariordeak edo batzordekideetako edozeinek proposatuta, honakoek batzordeko kide izan gabe– hartu ahal izango dute parte Aholku Batzordeko bileretan, hitzarekin baina botorik gabe:
   a). Hirigintza-planak idazteaz arduratzen diren teknikariek.
   b). Hirigintza eta ingurumen arloetako udal-teknikariek.
   c). Hirigintzako, ingurumeneko, kulturako, kiroleko, hezkuntzako, gizarte-gaietako eta beste arlo batzuetako izen handiko adituek.

*8. artikulua. Batzordekideen izendatzea eta kargu uztea.*

1. Alkateak izendatuko ditu Aholku Batzordeko kideak, baina izendatzeko proposamena honako ataletan ezarritakoaren arabera egingo da:
   a). Alderdi politikoetako ordezkariak, alderdiek beraiek proposatuta.
   b). Gainerako ordezkariak, dagozkien ordezkaritza-organoek proposatuta. Batzordean parte hartu nahi duten entitateen kopuruak gehieneko ordezkaritza kopurua gainditzen badu, eta elkarte horien artean adostasunik ez badago, Batzordeko lehendakariak ezarriko du parte hartzeko modua –zozketa bidez, txandakatze bidez, batera bertaratzearen bidez, edo egoki iritzitako beste formula baten bidez–.
2. Batzordekide izendatuak izan aurretik, pertsona horiek kargua onartu beharko dute.
3. Aholku Batzordeko kide diren zinegotziek, nolanahi ere, udalbatzaren agintaldia amaitzen denean utziko diote batzordekide izateari.
4. Gainerako batzordekideak bost urtez izango dira karguan. Dena den, honako kasuetan ere kargua utzi ahal izango dute:

cada puesto un/a titular y dos suplentes.

2. Salvo en el caso de Agenda 21 Escolar, para poder designar representantes en el Consejo las asociaciones deberán estar inscritas en el correspondiente Registro General de Asociaciones. Además, las correspondientes a asociaciones vecinales, comerciantes y asociaciones de tipo cultural, deportivo y social deberán tener su domicilio y ámbito específico de actuación en Andoain.
3. A propuesta del/de la Presidente/a, del/de la Vicepresidente/a o de cualquiera de los/as vocales miembros, podrán también participar en las reuniones del Consejo, aun no siendo miembros del mismo, con voz pero sin voto:
   a). Los/as técnicos/as encargados/as de la redacción de los planes urbanísticos.
   b). Los/as técnicos/as municipales de las áreas de urbanismo y medio ambiente.
   c). Personas expertas y de reconocido prestigio en materia de urbanismo, medio ambiente u otras áreas temáticas como cultura, deportes, educación, asuntos sociales etc.

*Artículo 8. Nombramiento y Cese de los/as Vocales del Consejo.*

1. Los/as vocales del Consejo Asesor serán nombrados/as por el/la Alcalde/sa efectuán-dose la propuesta de designación según lo establecido en los apartados siguientes:
   a). Los/as representantes de los partidos políticos, a propuesta de éstos.
   b). Los/as restantes representantes por sus respectivos órganos representativos. En el supuesto de que las entidades que quieran participar en el consejo supere el número máximo de representatividad, a falta de acuerdo entre las asociaciones implicadas, el/la Presidente/a establecerá su forma de participación ya sea mediante sorteo, rotación, presencia conjunta o alguna otra fórmula que se considere adecuada.
2. El nombramiento de los/as vocales requerirá la aceptación previa por parte de éstos/as.
3. Los/as vocales que lo sean por ostentar la condición de concejales/as cesarán, en todo caso, cuando expire el mandato de la Corporación Municipal.
4. La duración del cargo del resto de los/as vocales/as será de cinco años, no obstante podrán ser cesados/as, también, por las siguientes causas:

a). Espresuki uko egiten dutenean.
b). Epai irmo batek kargu publikoa betetzeko ezgaitasun edo ezgaitzerik adierazten dienean.
c). Aholku Batzordeko kide beren karguak aginduta direnean, kargu hori galtzen dutenean utziko diote batzordekide izateari.
d). Proposatu zituen antolakundeak enkaitzen dituenean.

5. Hutsik geratzen diren postuak, bestalde, hasieran izendatzeko erabili zen modu berdinean beteko dira.

*9. artikulua. Kalteordainak.*

Aholku Batzordeko kideek ez dute haien funtzioak betetzeagatik inolako ordainsaria jasotzeko eskubiderik izango.

*III. Kapitulua*

*Funtzionamenduko Araubidea*

*10. artikulua. Ohiko eta ezohiko bilkurak.*

1. Udal Plangintzako Aholku Batzordea ohiko bilkuretan bilduko da Batzordearen txostena nahitaezkoa duten plangintza-espedienteak aztertzeko, betiere Erregelamenduaren 5. artikuluan ezarritakoaren arabera. Txosten hori jaulkitzearekin amaituko da ohiko bilkura hori.

2. Dena den, ohiko bilkurez gain, Batzordeak ezohiko bilkurak egin ditzake premiazko kasuak daudenean, edo hala komeni denean. Ezohiko bilkura horiek lehendakariak berak deituko ditu, bere ekimenez edo batzordekideen heren batek gutxienez eskatuta.

*11. artikulua. Bertaratze quoruma.*

Bilkurak egiteko behar-beharrezkoa izango da lehendakaria eta gutxienez batzordekideen herena agertzea. Gainera, bilkura osoan mantendu beharko da quorum hori. Quorum hori lortzen ez bada, berdin-berdin egin ahal izango da bilkura; alabaina, espresuki jasoarazi beharko da quorumik eza bilkura horri dagozkion txostenetan eta aktetan.

*12. artikulua. Bilkuren deialdia.*

1. Bilerak edo bilkurak egin baino bost lanegun lehenago, gutxienez, egin beharko da bilera edo bilkura horien deialdia. Deialdiari bilkuraren gai-

a). Por renuncia expresa.
b). Por declaración de incapacidad o inhabilitación para el desempeño de cargo público por sentencia judicial firme.
c). En caso de los/as miembros que lo sean por razón de su cargo, cesarán cuando pierdan esa condición.
d). Remoción por la organización proponente.

5. Las vacantes se proveerán en la misma forma establecida para su nombramiento.

*Artículo 9. Indemnizaciones.*

Los/as miembros del Consejo Asesor no tendrán derecho a remuneración por el ejercicio de sus funciones.

*Capitulo III*

*Regimen De Funcionamiento*

*Art. 10. Sesiones Ordinarias y Extraordinarias.*

1. El Consejo Asesor de Planeamiento se reunirá en sesiones de carácter ordinario respecto a los expedientes de planeamiento que deban ser informados con carácter preceptivo por el Consejo según lo establecido en el artículo 5 del Reglamento. Dicha sesión ordinaria concluirá con la emisión del informe citado.

2. No obstante, fuera de las ordinarias, el Consejo podrá celebrar sesiones extraordinarias por razones de urgencia o de conveniencia, que serán convocadas por la Presidencia a iniciativa propia o a solicitud de, al menos, la tercera parte del número de personas miembro del Consejo.

*Artículo 11. Quorum de asistencia.*

Para la celebración de las sesiones será necesaria la presencia de la Presidencia y de, al menos, un tercio del número de personas miembros, quórum que habrá de mantenerse durante toda la sesión. Si dicho quórum no se alcanzase la sesión podrá celebrarse igualmente pero esta circunstancia de falta de quórum deberá constar expresamente en los informes y actas correspondientes a dicha sesión.

*Artículo 12. Convocatoria de Sesiones.*

1. La convocatoria de las reuniones o sesiones deberá realizarse con cinco días hábiles de antelación a su celebración. A la convocatoria se

zerrenda gaineratu beharko zaio beti.

2. Deialdia egin baino hiru egun lehenago egon beharko dute idazkaritzaren esku aztertu beharreko gaien eskariek.

3. Nolanahi ere, gai-zerrendan ez dagoen beste edozein gai premiaz eta bilkurari hasiera eman aurretik gai-zerrendan barne hartzea proposatu ahal izango du Aholku Batzordeko lehendakaritzak –haren ekimenez edo batzordekideetako edozeinek eskatuta.

*13. artikulua. Eztabaidak.*

Batzordearen lehendakaritzak bilkurak zuzenduko ditu, eztabaidak antolatuko ditu, eta bilkuren martxa ona bermatzeko neurri egokiak finkatuko ditu.

*14. artikulua. Lan-batzordeak.*

1. Lan-batzordeak eratu ahal izango dira hiri-plangintzarekin lotzen diren gai zehatzak berariaz aztertzeko. Aholku Batzordearen gehiengoak beharrezkotzat jotzen duenean ere eratu ahal izango dira.
2. Aholku Batzordeak finkatuko du lan-batzorde horien osaera, izena eta funtzionamendua.
3. Lehendakaritzak beharrezko –edo egoki– jotzen duen udal-aholkularitza teknikoa eskatuko du, baita kanpoko aholkularitza ere.
4. Aztertu dituzten gaien berri emango diote lan-batzordeek Aholku Batzordeari.

*15. artikulua. Erabakiak hartzea.*

1. Aholku Batzordearen erabakiak bertaratuen gehiengo soilez hartuko dira. Berdinketarik gertatzen bada, lehendakaritzak du kalitatezko botoa. Edonola ere, boto partikularrak ezarri ahal izango dira, eta erabakiarekin bat ez datozen aldeek planteatutako eragozpenak jasoarazi ahal izango dira.
2. Hartutako erabakiak idazkaritzak egingo duen akta batean jasoko dira. Akta hori aztertzen ari den hirigintza-espedientearen parte izango da. Erabakiei hirigintza-antolamenduko proposamen zehatzak edo ordezko aukera zehatzak gaineratu ahal izango zaizkie. Haatik, proposamen edo ordezko aukera horiek ez dira Udalarentzat lotesleak izango.

*16. artikulua. Funtzionamenduko barne arauak.*

Aholku Batzordeak funtzionamenduko barne-arauak ezarri ahal izango ditu eta lan-taldeak eratu ahal

acompañará en todo caso el orden del día de la sesión.

2. Las peticiones de asuntos a tratar deberán estar en posesión de secretaría con tres días de antelación a la elaboración de la convocatoria.
3. La presidencia del Consejo, por iniciativa propia o a petición de cualquiera de las personas miembros del mismo, podrá proponer la inclusión, con carácter de urgencia y previo a su inicio, de cualquier otro asunto no comprendido en el orden del día.

*Artículo 13. Deliberaciones.*

La Presidencia del Consejo dirigirá las sesiones, ordenará los debates y adoptará las medidas convenientes para garantizar el buen orden de las reuniones.

*Artículo 14. Comisiones de trabajo.*

1. Se podrán constituir Comisiones de trabajo para el tratamiento específico de temas puntuales relacionados con el planeamiento urbano o cuando se considere necesario por la mayoría del Consejo.
2. Su composición, denominación y funcionamiento serán determinados por el Consejo.
3. La presidencia solicitará la asistencia técnica municipal o de carácter externo que considere necesario y oportuno.
4. Las Comisiones de trabajo informarán al Consejo de los asuntos tratados.

*Artículo 15. Adopción de acuerdos.*

1. Los acuerdos del Consejo Asesor se adoptarán por mayoría simple de los/as asistentes. En caso de empate, la Presidencia ejercerá el voto de calidad. En todo caso, se podrán adoptar votos particulares y dejar constancia de las objeciones planteadas por las partes discrepantes.
2. Los acuerdos adoptados serán integrados en un acta que se elaborará desde la Secretaría y que formará parte del expediente urbanístico objeto de análisis. Estos acuerdos podrán ser acompañados con propuestas o alternativas concretas de ordenación urbanística de carácter no vinculante para el Ayuntamiento.

*Artículo 16. Normas internas de funcionamiento.*

El Consejo Asesor podrá, con sujeción a lo establecido en el presente Reglamento, establecer sus propias

izango ditu haren barnean, betiere Erregelamendu honetan ezartzen denaren arabera.

*17 artikulua. Lekua eta aktak.*
Aholku Batzordearen bilkurak udal-aretoetan egingo dira, eta bilkura horietako bakoitzaren akta egingo du idazkaritzak. Akta hori hamabost laneguneko epean helaraziko zaie batzordekideei, eta egiten den hurrengo bilkuran onartu beharko da.

*18. artikulua. Bitartekoak atxikitzea.*
Hirigintza arloan eskumena duen udal sailari atxikiko zaio Aholku Batzordea, eta, horrenbestez, udal sail horrek jarriko ditu batzordearen funtzionamendu egokirako beharrezko bitartekoak.

*IV Kapitulua*

*Batzordearen desegitea*

*19 artikulua. Desegitea.*
Batzordea Udalbatzarren erabakiaren bidez desegingo da, indarrean dagoen araubide juridikoaren arabera.

**Lehen xedapen gehigarria**

1. Erregelamendu honen seigarren artikuluan zerrendatutako partaidetza-tituluren bat duten elkarteek eta pertsonek Udal Plangintzako Aholku Batzordean sartzea eskatu ahal izango dute –hala nahi badute–, betiere erregelamendu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo hogei lanegunen barruan. Alkatetzak eskaera horiei erantzungo die, eta Aholku Batzordea eratzeko bilkurara deituko ditu onartutakoak.
2. Xede horretarako deituko den eratze-bilkuraren bidez eratuko da formaltasunez Udal Plangintzako Aholku Batzordea.
3. Aholku Batzordea eratu ondoren ere sartu ahal izango dira Aholku Batzordean Erregelamendu honetan xedatutakoa betetzen duten elkarteak, baldin eta zinegotzi ez diren batzordekideen gehieneko kopurua bete ez bada.

**Bigarren xedapen gehigarria**

Erregelamendu honetan espresuki aurreikusten ez diren alderdietan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen

normas internas de funcionamiento y constituir internamente grupos de trabajo.

*Artículo 17. Lugar y Actas.*
Las sesiones del Consejo Asesor se celebrará en dependencias del Ayuntamiento y de cada una de ellas se extenderá acta por la Secretaría, que será remitida a sus miembros en el término de quince días hábiles y será sometida a aprobación en la siguiente sesión que se celebre.

*Artículo 18. Adscripción de medios.*
El área municipal competente en materia de urbanismo, al que queda adscrito el Consejo Asesor, facilitará los medios necesarios para su correcto funcionamiento.

*CapituloIV*

*Disolucion del Consejo*

*Artículo 19. Disolución.*
El Consejo se disolverá por acuerdo plenario, conforme al ordenamiento jurídico vigente.

**Disposicion adicional primera**

1. Dentro de los veinte días hábiles al de la publicación del este Reglamento en el Boletín Oficial DE Gipuzkoa, las asociaciones y personas que así lo deseen, y se correspondan con algún título de participante enumerado en el artículo sexto, podrán solicitar su inclusión en el Consejo Asesor de Planeamiento Municipal. La Alcaldía responderá dichas solicitudes y convocará a los/as admitidos/as a la sesión de constitución del Consejo.
2. El Consejo Asesor de Planeamiento Municipal quedará constituido formalmente mediante la sesión de constitución que se convocará a tal efecto.
3. Una vez constituido el Consejo, podrán incorporarse al mismo, siempre que no se haya alcanzado en número máximo de vocales no concejales/as, las asociaciones que cumplan con lo dispuesto en este Reglamento.

**Disposicion adicional segunda**

En lo no previsto expresamente en este Reglamento, el Consejo Asesor de Planeamiento Municipal se regirá en cuanto a su funcionamiento y actuación por

azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. Tituluko II. Kapituluan xedatutakoaren araberako funtzionamendua eta jarduna izango du Udal Plangintzako Aholku Batzordeak. Gainerako xedapenetan, berriz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak ezartzen duenari eta Tokiko Entitateen Antolamenduko, Funtzionamenduko eta Araubide Juridikoko Erregelamenduak (2.568/1986 Errege Dekretuak) xedatzen duenari jarraituko zaio.

**Hirugarren xedapen gehigarria**

Erregelamendu honetan ezarritakoa aplikatu eta garatzeko beharrezko xedapen eta jarraibideak emateko ahalmena emango zaio Hirigintzaren arloan eskumena duen Gobernu Saileko titularrari.

**Azken xedapena**

Erregelamendu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita 15 lanegunetara jarriko da indarrean.

lo dispuesto en el Capítulo II del Título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común. En el resto de disposiciones, se estará supletoriamente a lo establecido la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local y en el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales (Real Decreto 2.568/1986, de 28 de noviembre).

**Disposicion adicional tercera**

Se faculta al/a la titular del Area de Gobierno competente en materia de Urbanismo para dictar cuantas disposiciones e instrucciones sean necesarias para la aplicación y desarrollo de lo establecido en la presente Reglamento.

**Disposicion final**

El presente Reglamento entrará en vigor a los 15 días hábiles a partir del día siguiente de su publicación en el Boletin Oficial de Gipuzkoa.